

Adierazpena "Memoriaren Egunean"

"Memoriaren Eguna" ospatzen dugu gaur. Oroipen-egun honetan, euskal erakundeon asmoa da herritar guztiei gonbit egitea bai iragana bai gizarte osoak jasan zituen ondorio lazgarriak ez ahaztera, biktima guztiek jasan zituztenak, hain zuzen beharrezkoa delako aitortzea mina eta pairamena ez zirela bidezkoak izan. Biktima guztiei elkartasuna zor diegu, baita hurbiltasuna, egia, aitortza eta erreparazioa.

Era berean, Memoriarekiko hitzordu honek elkarrizketa plurala sustatu nahi du, baita sekula errepikatu beharko ez den iraganeko hari buruzko gogoeta kritikoa ere. Hartara, elkarbizitza ezartzeko borondate eraikitzailea partekatuko da, Euskadiren orainerako eta etorkizunerako, oinarri harturik ideia-aniztasuna, oinarri demokratikoak eta giza eskubideen defentsa.

Horregatik guztiagatik honakoa adierazten dugu:

- "inoiz ez" direla ez gertatu ez justifikatu beharko gure arteko indarkeria- eta terrorismo-agerbideak
- giza eskubideak hautsi ditzakeen edozein mehatxuri sendo egingo diogula aurre eta
 - gure borondatea, Euskadiren orainerako eta etorkizunerako, bide baketsu eta demokratikoetan sakontzean datzala, horixe baita formula bakarra elkarbizitza libre eta baketsua eraikitzeko.

Euskadin, 2016ko azaroaren 10ean

Akordio proposamena

1. *Memoriaren Eguna oroitzea, horri begira 2016ko azaroaren 10ean, 19:00etan, Udaletxe aurrean, 5 minutuko elkarretaratzea deituz, eta bertara udal ordezkariak egotea.*

2. *Dei honen berri aldeztu aurretik eta modu oparoan ematea, baita gonbita egitea ere herritar guztiek eta gure udaleko gizarte-erakundeen ordezkariak bertan parte har dezaten.*

